GORBEIA SUZIEN 21K / EUSKAL HERRIKO KADETE, GAZTE ETA JUNIOR TXAPELKETAKO ARAUDIA 2022

1. Eguna eta lekua: Gorbeia Suzien 21K eta Euskal Herriko Kadete, Gazte eta Junior mailako Mendi Lasterketen Txapelketa 2022ko urriaren 8an izango da. Zeanuriko herritik abiatuko da. Irteera ordua zehazteke.

2. Ibilbideak: Lasterketak burutzeko 3 ibilbide izango ditugu:

1. Gorbeia Suzien 21K-k eta Euskal Herriko Junior kategoriako Txapelketako ibilbideek 21km luze eta 1300m desnibel positiboa izango dute.
2. Euskal Herriko Gazte Mailako Txapelketako ibilbideak 18 km luze eta 1000m desnibel positibo izango du. San Justoko ermitatik irtengo da lasterketa hau.
3. Euskal Herriko Kadete kategoriako Txapelketako ibilbideak 15 km luze eta 600m desnibel positiboa izango du. Andramariortutik irtengo da lasterketa hau.

Antolakuntzak ordezko ibilbide bat prestatuta izango du ibilbidean edo lasterketaren prestaketan arazoak sortzekotan. Ustekabeko arrazoi pisutsu batengatik antolakuntzak lasterketa bertan behera uzteko ahalmena izango du.

3. Parte hartzea:

- Gorbeia Suzien 21k lasterketan 15 urtetik gorako edozein korrikalarik parte har dezake.
- Euskal Herrriko Junior kategoriako Txapelketan 19 edo 20 urte dituzten korrikalariek har dezakete parte. Derrigorra izango dute EMF-ko lizentzia edukitzea.
- Euskal Herriko Gazte kategoriako Txapelketan 17 edo 18 urte dituzten korrikalariek har dezakete parte. Derrigorra izango dute EMF-ko lizentzia edukitzea.
- Euskal Herrriko Kadete kategoriako Txapelketan 15 edo 16 urte dituzten korrikalariek har dezakete parte. Derrigorra izango dute EMF-ko lizentzia edukitzea.

Izena ematen duen orok bete behar du araudi hau, baita FEDME-rena ere.

4. Kategoriak: 21K-n emakumezkoen eta gizonezkoen kategoria absolutua. Kadete, Gazte eta Junior kategorietan Euskal Herriko Mendi Lasterketen Txapelketa izango da.

5. Izen-ematea:

- Gorbeia Suzien 21K 2022 mendi lasterketan izena emateko epea **apirilaren 4**ean zabalduko da **goizeko 9etan**, 175 dortsalak bukatu arte. Kanpoan gelditzen direnekin itxaron zerrenda bat osatuko da.

-Zeanuriko herritarrek egun bat lehenago izango dute izena emateko aukera. Beraz, zeanistarrek apirilak 3an, arratsaldeko 18.00etatik 20.00etara, Zeanuriko udaletxe azpiko gelan eman ahalko dute izena.

- Euskal Herriko Junior, Gazte eta Kadeteen lasterketarako izen ematea **apirilaren 4**ean zabalduko da, kategoria bakoitzerako 20 dortsal izango ditugu. Kanpoan gelditzen direnekin itxaron zerrenda bat osatuko da.

- Izen-ematea www.gorbeiasuzien.eus web orrian dagoen loturatik, Rockthesport plataforman dagoen formularioa beteta egin beharko dute.
- Gorbeia Suzien 21K lasterketarako dortsala dutenek 45 euroko ordainketa egin beharko dute eta Euskal Herriko Txapelketarako dortsala dutenek 30 eurokoa.
- Ez da korrikalaririk onartuko diru sarrerarik egin ezik, bestela, itxaron zerrendako hurrengoari emango zaio izen ematea egiteko aukera.
- Dortsalen diru-itzulketa itxaron zerrendako korrikalariren batek haren lekua hartzen badu egingo da.

2022 URTEA	ITZULIKO DEN DIRUAREN %a
APIRILA-MAIATZA	%80
EKAINA- UZTAILA	%70
ABUZTUA	%60
IRAILAREN 1etik aurrera	EZ DA ITZULKETARIK EGINGO

6. Eskubide eta bete beharrak:
- Gorbeia Suzien 21K eta Euskal Herriko Kadete, Gazte eta Junior Txapelketetan izena eman duten korrikalariek lasterketaren eta FEDMEren arautegia errespetatu beharko dute.
- Dortsala hartzen den momentuan hau eskuratuko da: proban parte hartzeko eskubidea, istripu eta erantzukizun zibileko asegurua, antolakuntzak ezarritako zerbitzuak erabiltzeko aukera eta lasterketako oparia.
- Dortsala norberarena eta transferiezina izango da. Horregatik, korrikalariak berak hartu behar du, NAN-a aurkeztuz ezarritako lekuan eta orduan.
- Bajak direla eta gertatuko diren hutsuneak, itxaron zerrenda errespetatuz beteko dira eta antolakuntzatik zuzenean jarriko dira korrikalari hauekin harremanetan. Kasu hauetan ere izen ematea egiteko baldintza guztiak bete beharko dira dortsala eskuratzeko. Ordainketa egiteko 7 eguneko epea izango da.

7. Seinalizazioa: Ibilbidea behar bezala seinalatuta egongo da. 5 kilometroro helmugara bitarteko distantziak zehaztuko ditugu.

8. Kontrol puntuak: 21K lasterketarako eta Juniorren Euskal Herriko Txapelketarako, zazpi izango dira ibilbidean zeharreko kontrol puntuak eta derrigorrezkoa izango da bertatik pasatzea. Ibilbideko mapa eta perfiletan zehaztuko ditugu kontrol puntuak. Euskal Herriko Txapelketarako: Gazte mailakoek 6 kontrol puntu izango dituzte eta Kadeteek 5.

9. Anoa-guneak:

- Gorbeia Suzien 21K-ko lasterketan eta Euskal Herriko Junior Txapelketan, helmugakoaz gain, zazpi anoa-gune solido-likido egongo dira. Ibilbideko mapa eta perfiletan zehaztuko dira. Euskal Herriko Txapelketako Gazteek 6 izango dituzte eta Kadeteek 5.
- Anoa-guneetan dauden arduradunen argibideak betetzea derrigorrezkoa izango da. Arau hau ez betetzeak zuzenean lasterketatik kanporatzea ekarriko du.
- Anoa-gunea baino 100m lehenago eta ondoren, anoa-gunearen hasiera eta amaiera seinaleak egongo dira.
- Anoa-gunean, mahaietako aldera ezin izango da laguntzailerik sartu. Lasterketan parte hartzen ez duen kideren baten laguntza jasotzeko, mahaien gune horretatik kanpo baina anoa-gune eremuaren barruan izan beharko da.



10. Denbora mugak:

- Gorbeia Suzien 21K lasterketan eta Juniorren Euskal Herriko Txapelketan 4 ordu eta 30 minutu baino lehen iritsi beharko da helmugara. Denbora hori gaindituz gero, sailkapenetik kanpo geratuko da korrikalaria.
- Antolakuntzak korrikalaria kanpora dezake tarteko kontroletan aurreikusitako denbora mugak betetzen ez dituelako, lasterketako araudia errespetatu ez duelako, markatutako ibilbidea jarraitu ez duelako, dortsala dagokion moduan ez daramalako, antolakuntzako kideen esanak betetzen ez dituelako edo lasterketako kideekin jarrera desegokia erakutsi duelako.
- Kontrol puntuetan aurreikusitako denbora mugak:

KONTROLA	**Km**	**DENBORA MUGA**
Gorbeiako aterpea	9	120 min
Zenigorta	11	180 min
Lanbreabe	17	225 min

- Lasterketa osoan zehar antolakuntzako bi korrikalari azkenengo korrikalarien atzetik joango dira. Korrikalariren bat kanporatzekotan, dortsala entregatu beharko du kontrol punturik

hurbilenean eta lasterketa bertan behera utzi beharko du antolakuntzako kideek agindutako moduan.

11. Sariak:
Gorbeia Suzien 21K lasterketan sariak emakumezkoen eta gizonezkoen kategorietako lehen hiru postuetan gelditzen direnek jasoko dituzte. Sariak bertako produktuekin egindako otzara ederrak izango dira.

12. Azalpen batzarra:
Antolakuntzak azalpen batzar bat eskainiko du lasterketa bezperan, 2022ko urriaren 7an, arratsaldean, Zeanuriko frontoian. Bertan, ibilbidearen zehaztasun guztiak emango dira.

13. Dortsal banaketa:
Zeanuriko frontoian emango dira dortsalak lasterketa bezperan, 2022ko urriaren 7an, 17:00etatik 20:00etara, baita lasterketako egunean bertan ere, goizeko 08:00etatik 09:30era.

14. Ingurumena:
Lasterketak paraje ederrak zeharkatuko ditu, beraz, guztien betebeharra da ingurua zaintzea anoa-guneetatik kanpo zaborrik bota gabe. Anoa-guneetatik 100 metrora arte zabor poltsak ipiniko dira. Korrikalaria kanporatu ahalko da arau hau ez errespetatzekotan.

15. Osasun zerbitzua:
Puntu estrategikoetan osasun zerbitzua jarriko da, baita irteera gunean ere.

16. Segurtasuna: Antolakuntzak ibilbidea alda lezake korrikalarien segurtasuna bermatzeak hala eskatuko balu. Bertan behera ere utz dezake lasterketa eguraldia edo halabeharrezko beste edozein baldintza medio.

17. Istripuak:
Korrikalariak zauritutako kideak laguntzera behartuta daude, baita kontrol puntuetan informatzera ere.

18. Ezinbesteko materiala eta oharrak:
- Haizearen kontrako jaka eramatea derrigorrezkoa da eta bakoitzaren neurrikoa izan beharko da, mauka luzeduna eta txanoduna. Txano gabekoa izatekotan, aparteko txapela, buffa edo burua osorik estaltzen duen antzeko janzkiren bat eraman beharko da.
- Eguraldiaren arabera, antolakuntzak beharrezko material gehigarria eska dezake, adibidez, manta termikoa edo euritarako jaka.
- Antolakuntzak eskatutako lekuetan maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da.
- Anoa-guneetan ez da edalontzirik egongo, korrikalariak berak eraman beharko du bere edalontzia.
- Gomendagarria izango da manta termikoa eramatea.
- Lasterketako pultsera jarrita izan beharko da.

19. Oharrak:

- Derrigorrezko materialaren kontrola egingo da irteeran eta helmugan. Irteerako kontrolera aurrerapen nahikorekin joan behar da.
- Dortsala bular parean eraman behar da, eta ahal den neurrian, une oro ikusgai. Kontrol guztietan erakustea eskatuko da.
- Lasterketa uztekotan, kontrol batean egin behar da. Derrigorrezkoa izango da dortsala kendu eta antolakuntzaren esku uztea. Berreskuratu nahi izatekotan, antolakuntzari jakinarazi behin lasterketa amaituta.
- Ez da antolakuntzaren betebeharra lasterketa utzi duten korrikalariak herrigunera eramatea. Hala ere, antolakuntza laguntzen saiatuko da posible den neurrian.
- Hornikuntzarik ezin da jaso hornidura guneetatik kanpo.
- Bastoiak erabil daitezke. Hala ere, irteeratik San Justoko ermitaraino ezin dira erabili eta tolestuta eraman behar dira. Bastoiok kontrol eta hornidura guneetan hartu eta utzi ahal izango dira.
- Lasterketa egunean kontsigna zerbitzua egongo da dortsalak hartzeko gunearen ondoan.
- Irteerako guneak eta beroketa guneak ikusi irudian.

NOTA GARRANTZITSUA (COVID-19)

Egoera epidiemologikoa ikusita, lasterketa aurretik antolakuntzan neurri zehatzak hartuko ditu eta COVID protokolo zehatz bat zehaztuko du. Protokolo hau korrikalari guztiek eskuragarri izango dute lasterketa aurretik.